

## Doñana fraktala

Héctor Garrido argazkilariak Doñanaren formak erakusten dizkigu "Armonia Fractal de Doñana y las Marismas" argazki-erakusketan. Airetik ikusita, Doñanako paduretako bihurtuneek, kurbek eta adarkatzeek fraktal-itxurako paisaia ikusgarriak osatzen dituzte. Naturaren formak dira, urak lurrian edo lokatzetan marrazten dituenak.

Goiko argazkian, esaterako, Guadalete ibaiak marraztatutako labirintoak ikus daitezke. Kolore ilunak bakterioen jarduera anaerobikoaren isla dira; berde biziak, berriz, algek jartzen dituzte. Eta eskalaren adierazle bakarrak, puntu txuri horiek: kaiolak.

Apiril osoan izango da erakusketa, Gasteizen, Salburuako Ataria interpretazio-zentroan.

ARG.: HÉCTOR GARRIDO/CSIC. WWW.ARMONIAFRACTAL.COM



